

# ZENTZUMENEN ZAINKETA

Aukeratu ea hurrengo esaldiak egia ala gezurra diren:

- **IKUSMENA**

- Argi gutxirekin irakurri behar da.
- Telebista ez da oso gertu ikusi behar.
- Begiak ez dira garbitu behar.
- Ordenagailua oso gertutik ikusi behar da.
- Begien medikua "oftalmologoa" da.

- **ENTZUMENA**

- Musika oso altu entzun behar da.
- Belarriak garbitzeko ura sartu behar da.
- Belarrien medikua "albaitaria" da.
- Toki zaratatsuak saihestu behar dira.

- **UKIMENA**

- Egunero dutxatzea ez da ona.
- Eguzkitako krema txarra da gorputzarentzat.
- Azaleko espezialista "dermatologoa" da.
- Zauria egin ezkeru ongi garbitu eta desinfektatu behar da.

- **USAIMENA**

- Behatza sudurzuloan sartu behar da mukiak ateratzeko.
- Papera sartu behar da sudurzuloa ongi garbitzeko.

- **DASTAMENA**

- Hortzak astean behin garbitu behar dira.
- Jaki beroak hobeak dira hotzak baino.
- Hortzekin batera mihia ere garbitu behar da.